

noaua

**Erraustegiaren aurkako
gose greba hasi dute**

**Mugikortasun Plan
berri bat garatzen
hasi da Udala**

**Larunbat honetan,
Zumarte Musika
Eskolako festa**



**Yolanda Arrieta: “Niretzat ahozkoa
eta idatzizkoa iturri bereko bi ur dira”**

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Begiraleekin antolatutako jarduerak.

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakera.

657 794 677

www.begi-bistan.com · info@begi-bistan.com

FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

- GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:
- HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

ESKAERA EGITEKO AZKEN EGUNA, EKAINAK 16!

(Izapide guztiak egiten ditugu: Osasun Saileko baimenak, Udala, Erregistro Zibila, osasun-garraioa erraustu-labera edo beste hilerrri batera...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

943 36 21 63 (24H)

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE

- BEILATOKI GUZTIAK · ERRAUSKETAK
- EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA INGURUNE PAREGABEAN Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia E: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

Albiste iruditzen

Euskal Sagardoaren aurkezpena

Zumeta estudioan amaitu da aurten 5. Sagastiak Loretan zikloa, artea eta sagardoa batu zituen hitzordua interesgarri askoan. “Pinturak eta sagardoak maridaje ona egiten dute”, baieztatu zuen hitzordua abiatzeko Usoa Zumetak. Maiatzean zabaldu zuten Zumetaren erakusketako artelanak ikusiz, “Euskal Sagardoa” jatorri izendapena duten sagardoak dastatzeko aukera izan zen ekainaren 6an Txikiardi gaineko paraje ederrean kokatua dagoen estudioan.

Bezperan jendaurrean aurkezturiko aipatu izendapenari buruzko hainbat argibide eskaini zituen baita Unai Agirre teknikariak. Urrats historiko eta garrantzitsutzat jo dute izendapen hau sortzea. Dagoeneko EAE-ko 36 sagardotegi dira egitasmoarekin bat egin dutenak, tartean Usurbilgo Saizar eta Aialde-Berri, etorkizunean gehiago izango dira. 1,32 milioi litro sagardo ekoizten dira jatorri izendapen honekin, ekoizpen osoaren



Dagoeneko 36 sagardotegi dira ‘Euskal Sagardoa’ jatorri izendapenarekin bat egin dutenak, tartean Usurbilgo Saizar eta Aialde-Berri. Etorkizunean gehiago izango dira.

%10-12. Jatorri izendapenak besteengandik ezberdintzen duen berezitasun bat badu. “Bertakoa izan eta sagardotarako den sagar mota guztiak izendapen barruan onartu dira”, zioen Agirrek. Guz-

tira tokian tokiko berezitasunak dituzten 115 sagar mota. Jatorri izendapen honekin jorratzen hasiak diren “bide honek erakutsi behar digu beste modu batera saltzen”.

Laburrean

Oinarrizko Lanbide Heziketako matrikulazioa

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatzeko epea ostiral honetan amaituko da. Bi dira eskaintzen diren zikloak: Ile-apainketa eta Estetika arloa; Sukaldaritza eta Jatetxe arloa. Informazio gehiago: 943360465 / lhi@usurbil.eus

Hasi dira danborradako entseguak

Ekainaren 14an abiatuko dira entseguak, eta astelehen, asteazken eta ostiralero egingo dira, 20:00-21:00 artean, Udarregi Ikastolako frontoian. Uztailaren 1ean ospatuko da danborrada, larunbatez aurten, 19:00-21:30 artean.

Lorazain lanpostura aurkezteko epea

Estatuko Aldizkari Ofizialean maiatzaren 30ean argitaratu zuten iragarkia. izen-emate epeak ekainaren 19ra arte iraungo du (egun hau barne). Informazio gehiago web orri honetan aurkituko duzue: www.usurbil.eus/eu/lan-eskaintza

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Muturraren aurrean jarri behar

Askotan muturraren aurrean, begirada saihestu ezina izateko moduan jarri behar digute zuzen edo oker ari garen jabetzeko, kontzientzia hartzeko eta aldaketan eragiteko. Eta begirada saihestea zaila da iazko udazkenean bezala, Usurbilgo Udalak berriz plazara atera duen hondakin kailola ondotik igarotzean.

Garai bateko txirristra eta parkea zegoen Mikel Laboa plazan kokatu zuten hilabete hasieran. Ikastola Egunaren bueltan, Oiarde Kiroldegi atarian. "Reality" bat bailitzan, egunez egun kailolak duen bilakaera aztertzeke aukera izan dugu. Kailola, kaleko zoruan herritarrok botatako zakarrez betetzen doa. Udal

brigadak bildu, egitura honetara bota eta Udalak guztiok ikusteko moduan jarri du.

Halakorik ez egiten irakatsi ziguten etxean, badirudi ordea guztionak diren heinean, desgoki baliatzen ditugula herriko kaleak. Erosi, kontsumitu eta bota. Eta orain, itxierarik ez duen ziklo kontsumista horri, langileek eta Udalak berak fase berriak erantsi dizkiote. Erosi, kontsumitu, bota, bildu eta... kailolara.

Eta kailolan egunotan ikusi dezakeguna beste behin, ez dira gai organikoak, papera, kartoia, beira... Badirudi hondakin zatiok hain erraz ez ditugula botatzen lurrera. Zerbait ikasiko genuen orain artean. Aldiz, egun ingurumenaren zaintzan kalte gehien eragiten

ari eta egungo gizarteak desgerrarazi ezin dituen dioxosozko plastikoekin ez dugu atarramendu onik. Plastikoak dira gehienbat kailolan gartzelartuak daudenak.

Kailola honen irudia Facebook bidez zabaldu genuen NOAUA!n eta herritarrek hainbat iruzkin interesgarri egin zituzten albisteari. Eztabaida bereziki zakarrontzien inguruan zentratu zen. Ia zakarrontzi gehiago behar ote ditugun Kaxkoan, edo ez. Eta ohi den moduan, kolore guztietako iritzi interesgarriak eman zituzten herritarrek. Zakarrontzien gaiaren atzean dagoena ere kontuan hartzea iruditzen zait.

Lehenbizi, kontziente ote garen kalean garenean zenbat

hondakin sortzen dugun, eta urrats txiki-handi gehiago eman ote ditzakegun, zakarrontzien beharrik ez izateko. Eta sortutakoarekin dugun erantzukizun maila. Ia baliabide guztiak eskura jarri behar dizkiguten, edo kailolan zintzilikatua dagoen panelak dioen moduan, etxean egiten ez dugun hori, kalean ere ez egiteko ardura hartzen dugun.

Argi dago, beste gai askotan bezala, muturraren aurrean jarri edota baliabideak mugatu arte ez garela jabetzen benetan hobetu beharrekoaz edo horretan dugun erantzukizunaz. Plazara atera da arazoa, eta plazatik konpondu beharko dugu gaia erantzukizunez, egunero, gutako bakoitzak.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Enplegua Erregulatzeke Espedientea aurkeztu dute Ingemarren

Neurri honek Usurbilgo plantako lan talde osoari, hau da 72 langileei eragingo die. Arbitrarioa dela salatu zuten langileek asteartean egindako agerraldian.

Baita diskriminatzailea ere, "egoera berdinean dauden taldeko beste lantegi batzuen aldean. Negozioaren bideragarritasunari, taldea osatzen duten pertsona juridikoei eta konkurtsoaren menpeko hartzekodunei on egin beharrean, kalte egiten die". Negozio-bolumena murrizten du, eta honenbestez, enpresaren bideragarritasuna berma dezaketen emaitza onak kaltetu ere bai. "Gainera, gauzatzen ari diren aktiboen salmenten ondorioz ondarea ere urritzen da etorkizuneko negozioa aurrera eramateko aukerak gutxituz", salatzen dute.



Donostiako Garibai kaleko Kutxabank atarian elkarretaratzeak egiten segiko dutela ohartarazi dute langileen ordezkariak.

Gogoan izan, urte hasieratik hartzekodunen lehiaketan daude Usurbilgo lantegia, baita Ingemarga eta Corporacion Ingemar. "Langileen ordezkariok jendaurrean salatu nahi dugu Ingemar Taldeko Zuzendaritza Konkurtsoen Legeaz baliatzen dela legean jasotako beste

xedeetarako. Hau da, hartzekodunak artatzeko itxura emateko, hitzarmen-eskaintza baten bidez; baina, aldi berean, negozioa murrizten dute itundutakoa beteezina bihurtu arte. Konkurtso Administrazioaileak ez du horretaz ezer esan". Administrazioaile hau eta Talde-

ko Zuzendaritza elkar hartuta daudela uste dute langileek, "konkurtoa lehenbailehen bukatzeko eta nor bere puskara ederra hartzeko".

Taldeko Zuzendaritzak aktiboez jabetu nahi omen du eta Usurbilgo lantegirako ez dute bideragarritasun-planik ez etorkizunerako bermerik aurreikusten. Langileek haien esku dagoen guztia egingo dutela iragarri dute, "mafia-kutsuko azpijoko hori argitzeke, eta nor bere lekuan jartzeko". Lugora joan asmo dute bertako langileen batzordearekin bildu edota mobilizatzera. Mobilizazioez ari garela, Donostiako Garibai kaleko Kutxabank atarian elkarretaratzeak egiten segi asmo dute langileek. Kutxabanki Ingemar itxi nahi ote duen argitzea eskatzen diote.

Erraustegiaren aurka, gose greba

Erraustegiaren gezur handiaren aurka herritar talde bat astebeteko gose greba abiatzeko zen asteazken honetan, Donostiako Easo plazan. Ekimen honekin bat egitera deitu zituen herritarrak Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, Donostiako Gipuzkoa plazan asteburuan egindako agerraldian.

“Herritarrei bertatik pasatzen dei egiten diegu. Konpromiso ezberdinak uztartzeko planteamendu bat egin nahi dugu. Bertara etortzetik, gose grebarekin bat egiteraino dagoen abaniko zabala aldarrikatu nahi dugu. Boteretik sustatzen ari diren eta garaiotan nabarmen bizi dugun desaktibazioaren aurrean, aktibazioa aldarrikatu eta baloreari jarri nahi dugu”, adierazi zieten heldabideei.

Protesta eredu aldazteza erabaki dute oraingoan. “Milaka



Donostiako Easo plazan egingo da gose greba, ekainaren 14tik 21era.

GREBAKO DEITZAILEAK

“Boteretik sustatzen ari diren eta garaiotan nabarmen bizi dugun desaktibazioaren aurrean, aktibazioa aldarrikatu nahi dugu”

eta milaka herritarrok proiektu hau arbuizatzeko gogoa ikusta-

razi arren, inposatu egin nahi dutela ikusten dugunez, protestak ezkutatu nahian ari direla ulertuta, oraingo honetan gose greba protesta eredu hautatu dugu, inposatu nahi diguten erraustegiak gu guztion bizitzengan izango duen eragin kaltegarria salatzen.”

Donostiako Udalak ekimen honen aurrean erakutsitako jarrerara salatu dute. “Plaza publikoaren erabilaren ukapenak

eta mobilizazioaren iraupenaren mugak aurkeztu dizkigu. Adierazpen askatasunari oztopoak jartzearen ariketa dela uste dugu. Aurrez aurre gaiari buruz galde egiteko asmoa diegu eta adierazpenerako kalea erabiltzeko eskubidearen beharra berresten dugu gure ekimenaren bitartez”.

Astebeteko gose greba

■ Epea: ekainak 14-21.

■ Tokia: Donostiako Easo plaza (Euskotrenen geltoki ondoko plaza).

■ Oharra: ekitaldiak egunero gose greba burutuko den gunean. Tartean, arratsaldero hitzaldi bat eta dokumental proiektzioa aurreikusi dituzte. Hitzorduotan jorratuko diren gaiak: aire garbia edukitzeko eskubidea, osasun eskubidea eta garapen eredu jasangarri eta bizigarria.

■ Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

“Erraustegiaren inguruko eztabaida ez da bukatu”

“Markel Olanok esandakoaren aurka”, gai honen inguruko eztabaida ez da bukatu eta protestatzen segiko dutela iragarri du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, ahalik eta herritar guztiak informatu eta kontzientziatu arte, “negozio pribatu diru xahutzaile eta osasunarentzako oso kaltegarria den egitasmoa inposatu nahi dutela, eta gainera, era iraingarrian ez digutela kontratua erakutsi nahi”.

Euskal Herrian nahiz Eu-

ropan ezartzen ari diren ingurugiroaren zaintzaren, gardentasunaren eta herritarren osasunaren aurkako politika antisozialok “herritarroan eragiten duten zapalkuntza salatzen asmo garbia dugu”.

Gipuzkoako udalerrien erdiek alternatiba merkeago, osasuntsuago eta garbiago abiatu eta %80ko gaikako bilketa izatera igaro direnean, “nola arraio ausartzen zarete erraustegia inposatzen saiatzen?” galdetzen dute.

“Herritarren diruak oparitzen ari dira”

Erraustegia multinazional eta klase politikoaren arteko sinbiosiaren adibide argia dela diote. “SWAP kontratuekin era fortzatuan inposatuak, entitate finantzarioei herritarren diruak oparitzen ari dira. 35 urteko hipoteka handia ezarri nahi dituzte udal baliabideentzat. Urbaser, Altuna y Uria, Murias, LKS Mondragon eta Moyua, Cuatrecasas abokatu bufetearen laguntzarekin besteren ar-

tean”.

Erraustegia eraiki eta kudeatzeko ardura duen enpresa taldeko kide Urbaserri buruz jakin ahal izan dutenez, “milioiak zor dizkio Valdeminomezeko erraustegiagatik bertako erakunde publikoei. Baina zeini arraio eman diozue erraustegia egiteko kontratua? Zergatik? Zer interes dago atzean ez bada negozioa? Zer sinatu duzue denon izenean? Isiltasuna ez da onargarria. Oso haserre gaude”.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
PUNTA PAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Zumarteren birgaitzea, Udalaren legegintzaldiko erronka nagusietakoa

Zumartek “behar ebidenteia zuen, eta behar horri erantzun behar zaio”. Udal gobernu taldea, legegintzaldi honi begirako egitasmo nagusietarikoa gautzen hastera doa; Zumarte Musika Eskolaren birgaitzea.

Usurbilgo Udaletik NOAUA!ri berri eman diotenez, proiektua une honetan tramitazio fasean da. “Une honetan exekuzio prozesua osatzen ari gara”, zehaztu dute. Oinarritzko proiektu bat prest da. Lanak “hasi eta buka egiteko”, datozen bi urteak beharko dituzte; 2017-18 eta 2018-19 ikasturteak hain zuzen.

Tarte horretan, Zumartek herriko beste gune batzuk baliatuko ditu bere jardunerako. Artzabal ondoko garai bateko Atez Ateko Bilketaren informazio gunean kokatuko dute bulegoa. Musikariak berriz, Santueneko frontoi atzeko lokalean eta Udarregi Ikastolako geletan bilduko dira. “Molestia horiek ondo hartuko direla uste dugu, gerora datarrenari begira”, adierazi dute Udaletik.

Azpiegiturak nabarmen hobetuko dira

Musika eskola birgaituko dute, “dagoenetik abiatuz, eta irisgarritasun, jasangarritasun eta segurtasun irizpideak kontuan hartuta”. Handitu egingo dute eskola, Txaramunto aldera. Azpiegiturak hobetuko dituzte,



Musika Eskola birgaituko dute, “dagoenetik abiatuz, eta irisgarritasun, jasangarritasun eta segurtasun irizpideak kontuan hartuta”.

LANAK IRAUN ARTEAN

“Tarte horretan, Artzabal ondoko garai bateko Atez Ateko Bilketaren Informazio Gunean kokatuko dute bulegoa. Musikariak berriz, Santueneko frontoi atzeko lokalean eta Udarregi Ikastolako geletan bilduko dira”

baita dituzten intsonorizazio arazoak konpondu ere. “Espero dugu, horrekin musika eskola bera eroso eta ondo senti-

tzeta”, gaineratu dute Udaletik.

Bai Zumarte eta baita Orbel-di Dantza Taldea ere. “Musika eskolari erantzutearekin batera, ikusten bada, eta ikusi da modua, dantza taldeak ere hor-ko aretoren bat edo beste erabiltzeko, hori ere proiektuan jasotzen saiatu gara”, Udaletik aditzera eman dutenez.

Udalak proiektua elkarlanean landu du musika eskolako erabiltzaileekin. “Hasieratik planteatu da behar erreal batzuei erantzuteko proiektua. Zumarterekin elkarlanean egin da”. OS3 arkitekturak diseinatu du proiektua.

Larunbat honetan “Gero arte” festa

Eraikina hustu eta erabe-rritze eta handitze lanei ekin aurretik, merezitako “gero arte” esanez, agur festa modukoa antolatu dute larunbaterako, ekainak 17, Zumartekoek. Ospakizun egun borobila prestatu dute, 32 urtez musika etxea izan dutenaren atzealdean hain zuzen:

Ekainak 17, larunbata

■ 10:00 Txistulari eta trikitalari-panderojoleak kalejiran.

Musika Eskolaren bueltan:

■ Egunean zehar, musika eskolaren urteotako ekitaldietako argazki eta bideo proiektzioa Zumarteko erai-kinaren barruan.

■ 11:00-13:30 Kontzertuak. Biolin, klarinete, txaranga taldeak, Musika Txokoko ikasleena...

■ 13:30 Bazkari girotua. Jatekoa norberak eraman beharko du, edatekoa Zumar-terkoek jarriko dute. Taberna txiki bat ere egongo da.

■ 16:00-20:00 Kontzertuak: abesbatzak, txistulariak, pop-rock taldeak...

■ 20:00 Kalejira Eibarko Ustekabe txarangarekin Usurbilgo kaleetan zehar.

■ 21:30 Afari herrikoia uda-letxe aurreko plazan. Txartelak 10 eurotan salgai Antxetan eta Zumarten, ekainaren 13ra arte. Menua: Antxeta jatetxeak sukaldaturikoa.

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

ELORZA

O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Mugikortasun plana, inklusibotasunetik

Zabalik segi eta etorkizuneari ere hala jarraituko duen parte hartze prozesuan urrats berri bat ematera doa Usurbilgo Udala. Herria Antolatzeko Plan Orokorriari buruz ari gara. Gogoan izango duzue, aurreko udazkenean zehar, “Kale Irekiak” izeneko egitasmoa, Mugikortasun Plan berri bat garatzen hasi zela Usurbilgo herria usurbildarrek, “non herriaren behar, gabezia eta etorkizunerako aukerak eta nahiak planteatu ziren”.

Prozesuko fase hartan bildutako herritarren ekarpen horiek dokumentu tekniko batean jaso ditu Udalak. Hauek “teknikoki nola gauzatu litezkeen” horri buruzko proposamen bat landu du. Ekainaren 13 eta 20rako Potxoenean deitu dituen saioen baitan jendarean aurkeztuko dute.

Herritarrek dokumentu horretan jasotako egitasmo guztiok garrantziaren arabera sailkatzeko aukera izango dute; hau da, lehentasunak finkatu ahaliko dituzte.

Oinezkoa erdigunean

Oinezko eta autoentzako eremuak zeintzuk izango diren, nola mugitu behar dugun herrian, garraio publikoaren



Kale Irekiak egitasmoaren baitan, bilera irekia deitu dute ekainaren 20rako. Potxoenean egingo da, 18:00etan.

MUGIKORTASUN PLANA

“Plan honen beharra aldarrikatzen du udal gobernu taldeak, “guztiok atseginoago bizitzeko eta herria biziagarriago izateko”

antolamendua... eta gehiago definituko ditu, etorkizunari begira Udala lantzen ari den Herria Antolatzeko Plan Orokorriak (HAPO). Plan horretarako, mugikortasun eredu berria proposatzen du Udalak.

Inklusiboa, guztiontzat eta guztion beharrezan erantzun-godiena, udalerritik atsegin eta eroso batean bizitzea ahalbidetuko duena. “Uste zabaldua eta onartua da gizarteko sektore guztiei egin behar zaiela tokia herrian eta gizarteko sektore guztiek izan behar dutela eroso eta modu atseginean mugitzeko eskubidea”, gogorarazten dute Udaletik. Gizarte sektore guztiei zuzenduriko plan honen beharra aldarrikatzen du udal gobernu taldeak, “guztiok Usurbilen atseginoago bizitzeko eta herria biziagarri-

goa izateko”.

Ikuskera aldaketa

Plan honek herria antolatzeko moduan, irizpide argi bat ezarri nahi du; oinezkoa jarriko du egitasmo honen erdigunean. “Garbi dago eta hau ez da gure asmatutako zerbait, oinezkoei tokia, espazioa eman behar zaiela eta hirerarkia horretan bukaeran jarriko genituzke ibilgailu motordunak. Horrek aldaketa kultural bat, nolabait gure ikuskera aldatzea eska-tzen du”.

Zabalik segiko duen prozesua

Epe luzera begira gauzatzen joango den planeamenduari ari gara. Epe ezberdinetan gauzatu dira egitasmoak. Herritarren ekarpen eta lehentasunetik abiatu dira, baina hauek gauzagarri egiteko bestelako faktore batzuk ere kontuan hartu behar dira, ekonomikoak tartean. Edota Udalak ez duela eskumen osoa esaterako zerbait gaien kudeaketan, errepide edo trenbide sarean esaterako.

“Ikusi behar da, herritarren lehentasun horiek zenbateraino diren gauzagarriak, zenbateraino diren teknikoki egingarri epe jakin batzuetan, eta zenbateraino duen Udalak gaitasun ekonomikoa horri guztiari aurre egiteko”, adierazi dute Udaletik.

Argi dagoena da, herritarren lehentasunetan oinarrituriko etorkizunerako bide-orria lantzen ari dela herri hau, “non

ipar bat edo helburu bat markatuta dagoen eta pausoka joan behar dugun helburu horretara hurbiltzen”. Etorkizuneari sor daitezkeen beharrezan berriek, bide-orri hau birmoldatzea ekar dezakete. Horregatik, pasa den udazkenetik abian den “Kale Irekiak” izenak dioen bezala, abian den parte hartze prozesuak edozein modalketa egiteko irekita segiko du etorkizuneari ere.

Datorren hitzordua

Ekainak 20, asteartea

■ 18:00 Bigarren partehartze saioa Potxoenean. Gune ezberdinetako lanak egiteko proposamen garrantzitsuenen azalpenak. Lehentasunekoak, garrantzizkoenak, egingarrienak proposatzeko aukera izango da. “Informazio horrekin, Espazio Publikoaren Planean denbora-plangintza gauzatu da”, berri eman dute Udaletik.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Naziogintza, euskara eta estrategia independentistari buruzko solasaldia antolatu du Sortuk

Horixe duzue, Sortu Usurbilek ekainaren 20rako 19:30ean Sutegin antolatu duen solasaldiko gonbidatuek, Pello Otxandiano (Sortu), Edurne Larrañagak (LAB) eta Xabier Iraolak (Ernai) jorratuko duten gaia. Mertxe Aizpurua kazetariak gidatuko du saioa. “Independentismoa eta euskara elkarrekin doazen bideak dira?”, hortxe mahai gaineratuko duten galdera eta kezka.

Zergatik antolatu duzue hitzaldia?

Sortu Usurbil: Abian eztabaida prozesuarekin hasi eta Sorturen birfundazioan ere Ezker Abertzaleak sakonki berrikusi du bere ildo estrategikoa eta orain ildo berriaren gauzapenean urratsak emateko momentuan gaude. Era kolektiboan, euskalgintzan eta kulturgintzan dabilen Ezker Abertzaleko kidego zabalarekin sakontze ariketa hasi du Sortuk, sei orriko txosten batekin abiatuta eta guri ariketa hau herrira ekartzea interes-



Olatz Altunak eta Hodei Giradok hitzaldiari buruzko azalpenak eman dizkigute.

EKAINAREN 20AN

Pello Otxandiano (Sortu), Edurne Larrañaga (LAB) eta Xabier Iraola (Ernai) arituko dira Sutegin arratsaldeko 19:30ean hasiko den solasaldian

garria iruditu zaigu, batez ere euskararen baitan kezka nabarmena sumatu dugulako. Bai herriko gazteenengan, bai euskararen erabilpenaren inguruan, herri galdeketa bai-

ta ere era batera edo bestera azaleratzen zen gai bat zen, estrategia independentista eta euskara batera zihoazen edo ez. Herriko gazte antolakundeak ere bere kongresuan nazionalki eztabaidatua izan den emendakin bat idatzi zuen gai honekin kezkatuta. Uste dugu, Ezker Abertzaleko hiru antolakundeen ikuspuntua entzun, txostena ulertu eta gure aporazioak egiteko aukera edukita, oso aberasgarria izango dela Pello, Xabier eta Edurneren solasaldia. Zer leku du nazio-

gintzak estrategia independentistan? Independentismoa eta euskara elkarrekin doazen bideak dira? Elkarriketa piztu, ariketa gauzatu eta gure estrategia independentista martxan jartzeko unea iritsi da eta estrategia bera zehaztea da egikartzeko lehenengo pausoa.

Euskararekiko dagoen kezka agerikoa da.

Ezker Abertzaleak ikusi du nolabait egoera definitu beharra. Egoera soziolinguistiko berri honetan kokatu behar dugu, azkenean errealitatea aldatu delako. Horri buruz eztabaidatzeko aukera izango da Usurbilgo saioan.

Birkokatu behar gara panorama aldatu honetan.

Eta birkokatzeke jendearen parte hartzea behar dugu. Interesgarria litzateke jasotzea oro har jendeak nola bizi duen hizkuntzaren gaia Usurbilen eta bere egunerokoan, eta horren arabera posizio egoki bat bilatu. Sortuk jada bi mintegi egin ditu gai honen inguruan.

Olatz Altuna: “Euskaraz bizitzea erabaki duenak ez du aukerarik praktika hori egiteko”

Soziolinguistika Klusterreko teknikaria da Olatz Altuna. Apirila amaieran, Usurbil mailako euskararen kale erabileraren inguruan egin ohi duten bost urtean behingo neurketako emaitzak aurkeztu zituen Po-txoenean. Zortzi puntu egin du behera euskararen kaleko erabilerak udalerrri honetan. Usurbilen bezala, Euskal Herriko beste hainbat lekutan egin dituzte antzeko neurketak, eta nazio mailako emaitzak aurkeztekoak dira uztaila hasieran.

Orain arte egindakoaz hausnartzeko garaia

Datuek argi uzten dute Olatzen esanetan, “birplanteatu behar dugula zer egin dugun orain arte”. Duela 20 urtetik hona 185.000 hitzun gehiago ditu euskarak, lorpen mundiala izan dela dio usurbildarrak. “Mundu mailan ez dago beste errealiterik denbora gutxian hainbesteko hitzun pila irabazi dituenik, baina horrek ez du izan, nahi genuen edo espero zen isla erabileran”, nabar-

mentzen du.

Erabileraren diskurtsoa

Kezkagarritzat deritzo erabilerari dagokionean dagoen diskurtsoa. Alegia, euskaraz nahiz gaztelez mintzatzeko gai izan eta bakoitzak nahi duena egin ahal izatearen diskurtsoa. “Eta justu kontrakoa da”, dio Olatzek. “Azkenean euskaraz bizitzea erabaki duenak ez baitu benetan aukerarik praktika hori egiteko”, gogorarazten du.

Testuinguru honetan koka-

tzen du Altunak, Sortuk planteatzen duen solasaldiko gaia: “Naziogintzan zer leku behar du hizkuntzak? Benetan beste egoera soziolinguistiko batean egoteko non jarri behar dugu indarra? Zentzu horretan oso interesgarria iruditzen zait egin den planteamendua eta baita ere Ernairena, gazteen estrategia zein den ezagutzeko eta baita hain zabal den lan munduan LABek zer planteamendua egiten duen ezagutzeko”.

Azken Eguzkilaroa

haur antzerkia



Ekainak 20, asteartea
17:30ean frontoian

NOGUA



Diariari lotuta



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*Patata
Tropikala*
antzerkia

www.patatatropikala.com

Yolanda Arrieta: “Ahotsa gorputza da;

25 urte dira lehen liburua atara zuenetik, eta orduantxe hasi zen hitzaldi-tailerrak eskaintzen. Yolanda Arrietak urteotan pilatu duen esperientzia laburbildu du *Aho bete amets* (Denonartean) saiakera liburuan. Lan honetan oinarritzen den ikastaroa eskainiko du uztailearen hasieran Donostian. Izen-emaitea zabalik da oraindik.

NOAUA! Urte asko dira ipuinaren bueltan egin dituzunak.

Yolanda Arrieta. 25 urte dira lehen liburua atara nuenetik, eta orduantxe hasi nintzen hitzaldi-tailerrak eskaintzen. Haurrekin, gazteekin, gurasoekin zein hezitzaileekin. Hitzalditik baino gehiago dute tailerretik, hartueman dagoelako.

Bakarreko sorkuntza dago eta taldeko sorkuntza dago, baina taldeko sorkuntza horren barruan beste bi adar bereiztuko nituzke: idatzizkoa eta ahozkoa. Nik, zorionez, ahozkoa etxean jaso nuen. Naturalki. Etxean kantatu egin dugu asko, herrian ere bai. Eta nik hori guztia barru-barruan daukat. Idazten dudanean ere, irakurri egiten dut beti. Niretzat ahozkoa eta idatzizkoa iturri bereko bi ur dira. Idatziz jarritakoak nahiz ahoz esandakoak.

Saiakera honetan, ahozkoari erreparatu diozu bereziki.

Urte hauetan ikusi dut ahozkoa jaisten joan dela apurka-apur-



Aho bete amets (Denonartean) saiakera liburuan oinarritzen den ikastaroa eskainiko du uztailean Donostian.

YOLANDA ARRIETA

“Nire ustez, paperaren aurreko beste esperientzia hori –organikoa dena eta gorputzarekin zerikusia duena– oso garrantzitsua da”

ka. Batez ere ume txikiekin. Eta ume txikiekin egiten ez dena, ondoren gero eta gutxiago egingo da gazteekin. Azken hamar urteotan hala ere, psikomotritzitateak indar handia hartu du: ume txikien kasuan bereziki, eta hori zoragarria iruditzen zait; gorputzari garrantzia ematen zaiolako. Hor indar asko jarri da.

Ahotsa alboratuta geratu da

ordea. Antzeko iradokizunik egiten duzu liburuan.

Hori da. Literaturak badauka bere garrantzia. Askorentzat, umeei irakurtzea inportantea da. Baina liburua eskuan harturik eta, maiz, logika honi jarraituz: “irakurriko dizut irakurri egin behar delako”. Batzuk gustuz egingo dute noski, baina beste batzuk ez. Eta nire ustez, paperaren aurreko beste esperientzia hori, organikoa dena, gorputzarekin zerikusia duena, oso garrantzitsua da. Ahotsa gorputza da; hitza gorputzera eramanda. Azala, begiak, begirada, zu, ni eta esaten duguna. Uste dut hortxe hasten dela letrekiko gustua. Hor sumatu dut, hain juxtu, jaitsiera moduko bat azken urteotan.

Beste alderdi bat ere nabarmendu nahiko nuke. Tra-

dizioarekin lotuta dagoena. Tradizioari astindu ederra ematen ari gara, generoaren ikuspegitik batez ere. Eta ipuin tradizioaletan esaten diren hainbat gauzei ere bai. Gure tradizioeko euskal sehaska kantetan badira letra batzuk oso bortitzak izan daitezkeenak. Horiek gure barruaren ondorezaren isla direla defendatzen duenik bada. Baina egia da irudi bortitz horiek, desatsegin samarrak izan zitezkeenak, maiz ez zaizkigula baliogarriak izan. Eta horrek ahozkoa alde batera uztea ekarri du. Hori sumatzen nuen aspalditik, baina azken bospasei urteotan nire iloben umeekin jabetu naiz horretaz. Baita gurasoekin egin ditudan tailerretan ere. Nola transmititu kantu horiek. Ba kezka horrekin hasi ginen jolasean, eta letrak egokitzen joan gara.

“Irakurtzeko ere, ikasi beharko dugu lasai egoten”

NOAUA! Aho bete amets (Denonartean) saiakerak badu biografiatik. Baina eskaintzen dituzun tailerretako apunteen erakusgarri dela esan daiteke, ezta?

Yolanda Arrieta. Jendearekin zabiltzanean argudiatu ere egin behar duzu, ezin zara

soilik zure susmoetan oinarritu. Nik egiten ditudan gauza guztiak nire ni-tik pasatzen dira. Hori oso argi daukat. Norberaren ni horretatik abiatzen da sorkuntza. Horrek funtsa eta indarra ematen dio egiten duzun horri. Nik ideia hori ez dut baztertzen, indartu baizik.

Baina egia da ezin naizela neugan geratu. Ni-a izan behar du baina besteekin partekatzeko eta besteei agertzeko “nik horrela ikusten dut. Eta hau ona da honengatik eta honengatik”. Liburuan tarte bat eskaini diot harridurari, beste tarte bat isiltasunari, beste tarte bat elkarre-

kintzari, beste tarte bat hitzari ahots bihurtzeko.

Dena den, ahozkoa bezain garrantzitsua iruditzen zait ahozkoaren atzean dagoen guztia. Giro bat sortzea, adibidez. Irakurtzeko ere, ikasi beharko dugu lasai egoten. Ikasi egin beharko dugu isilik egoten.

hitza gorputzera eramanda”

NOAUA! Ahotsa berreskuratzeari aldarrikatzen duzu, eta kantuen bidez egitea proposatzen duzu.

Yolanda Arrieta. Kantua hizkuntzaren musika da. Formazio garaian, eta euskalgintzaren alorrean ere bai, alderdi komunikatiboaren ize-nean beste trataera bat ematen zaio hizkuntzari. Baina hizkuntzaren musikaltasuna ere landu beharra dago. Zeren eta oso ezberdina baita gauza bat era batera edo bestera esatea.

Ahotsa berreskuratzean gainera, berriro garrantzia ematen zaio pertsonari. Geurea da ahotsa, berezkoa. Ahotsak memoria eta emozioa jartzen du martxan. Eta memoriak, irudimena. Ixiar Rozasek ere aipatzen du ahotsarena Beltzuria (Pamiela) liburuan. Ahotsaren atzean mundu oso bat dago.

Ametsa bada saiakera lanean nabarmendu duzun beste faktore inportante bat.

Ametsa, zentzu osoenean. Zeren amets egitea ere bada zure burua oraindik ez dagoen leku horretan kokatzea. Imagina-



“Amets egitea ere bada zure burua oraindik ez dagoen leku horretan kokatzea. Imaginatzea. Eta horri garrantzia handia ematen diot nik”.

YOLANDA ARRIETA

“Geurea da ahotsa, berezkoa. Ahotsak memoria eta emozioa jartzen du martxan. Eta memoriak, irudimena”

tzea. Eta horri garrantzia handia ematen diot nik. Ahalmen hori entrenatu egin behar da. Dagoenaz gain, egon daitekeenaz hausnarrean egoteko etenik gabe. Hori behar dugu aurrera egiteko. Gustuko lanean zaudenean, adibidez,

hobetzen jarraitzeko. Eta gustuko ez duzun egoera batean zaudenean, “hau ez da betiko eta oraindik ere beste zerbait egin dezaket” ondorioztatzen. Hain da beharrezkoa amets egitea. Horrelako gauzak jartzen ahalegindu naiz.

Ezin iritsi dabilta gaur egungo gurasoak. Beste garai batekoekin alderatuz, diferentzia handia nabaritu al duzu?

Jakinmin handia dago baina ardua handiegia ere bai. Eta zailtza asko. Informazio ugari

dute eskura, baina galbahirik ez. Gaur egungo gurasoak, ia denak karreradunak dira edo unibertsitatetik pasatakoak. Informazio asko dute, irakurtzen dute, baina denak gara Internet kumeak eta hori itsaso handi bat da.

Sarean bilatzen hasi eta ez da erraza asmatzea.

Itota ikusten ditut, zeri heldu jakin gabe. Sentsibilizazio handia dago, informazio ugari baina galbaheia falta, eta neke asko. Oso nekatuta ikusten ditut: maileguak, etxea, lana, umeak, harremanak... Dena pilatzen zaie. Ezin heldu dabilta. Baina batzuk hasi dira gauza askori uko egiten. Horrelakoak ere badira eta horiek dira interesanteak. Beste zerbait egin nahi dute orain eta horrelako gauza txikiak egiten hasten dira. Tabakalera egon gara duela gutxi, Ubiken. Lau larunbat egin ditugu bertan. Itsaso Arrieta eta Aitziber Alonsorekin batera eskaini dut tailerra eta oso ondo joan da. Zizurkilgo ama batzuk etorri ziren eta euren herrian beste tailer bat egiteko deitu naute.

Euskal zenizientaren ipuina egokitzen ari da

NOAUA! Iaz, *Kulun kuttunak* (Denonartean) album ilustratua ondu zenuen Aitziber Alonsorekin batera. Album hau saiakeraren irudikapen-etzat har daiteke, ezta?

Yolanda Arrieta. Bai, adibide gisa har daiteke. Esan daiteke *Aho bete amets* (Denonartean, 2016) saiakera buruarekin egin dudala eta *Kulun kuttunak* (Denonartean, 2016) album ilustratua bihotzarekin, emozioarekin, estetikarekin eta artearekin.

Orain antzeko zerbait egin nahi dut Aitziber Alonsorekin. Mari-xor edo euskal zenizientaren ipuinarekin, zehatzago esanda. Bi eus-



“*Aho bete amets* (Denonartean, 2016) saiakera buruarekin egin dut eta *Kulun kuttunak* (Denonartean, 2016) album ilustratua bihotzarekin”.

karritan egiteko asmoa dugu. Formula horrek joko ematen duelako tailerrak egiteko. Liburu bere horretan irakurtzea

ondo dago, baina arteak ere sozialki eragiteko aukera eskaintzen du. Gauzak egiteko, hitz egiteko, elkartzeko...

“Aho bete amets” ikastaroa eskainiko du uztailean Donostian

■ Zer: Aho bete amets: haur literaturaren ahozko baliabideak (0-6 urte) ikastaroa.

■ Nork: Yolanda Arrieta Malaxetxebarria. Idazlea eta literatura dinamizatzailea. www.nitikgura.eus

■ Norentzat: 0-6 urteko haurren guraso, irakasle, irakasle-gai, hezitzaile, zaintzaile eta bitartekariak. Haur Literatura gustuko duen edonorentzat.

■ Noiz: Uztailak 3, 4, 5. Ordu-egia: 9:00-14:00


■ Non: Donostiako EHU-n.

■ Antolatzailea: Hik Hasi.

■ Matrikulazioari buruzko xehetasunak esteka honetan:

<http://www.hikhasi.eus/ikastaroak/66#topaketak>

Gidabaimenaren teorikoa euskaraz atera eta izan saria irabazteko aukera!



Dakizuna erabili ez dakizuna ikasteko



**GIDABAIMENA MERKEAGO
LOR DEZAKEZU!!**

BURUNTZALDEAN NON:

Andoain		
BENGOETXEA	Juan Bautista Erra 9	943 59 44 06
MENDI	Agustin de Leitza 11	943 30 06 04
Astigarraga		
OTAMENDI	Zubiondo 14 - LOIOLA	943 45 11 07
Hernani		
HERNANI	Latsunbe 3	943 55 05 34
	Urbietza 7	943 55 34 16
LAGUNAK	Karobieta 1	943 33 14 19
OTAMENDI	Izpizua 1	943 55 35 45
Lasarte-Oria		
MUGICA	Genbo 1	943 36 22 75
Urnieta		
SOLOZABAL	Idiazabal 24-1C	943 33 41 69
Usurbil		
SOLOZABAL	Irazu 2	943 37 69 36

MERKEAGO
ATERATZEA
NAHIT

GIDABAIMENA EUSKARAZ!!

**AZKEN TEKNOLOGIAN
MURGILDUTA
IRUDIEKIN JOLASEAN**

EMAN
BIDEA

**HAUXE DUZU GIDABAIMENA
ATERATZEKO MODURIK
ERAKARGARRIENA!!!**



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak

Drain

**gidabaimena
EUSKARAZ**

**ETA HORI GUTXI
BALITZ...**

**ZOKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA
9 SARI BURUNTZALDEAN:
TEORIKOAREN BALIOA (400 € GERIENEZ)**

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIEN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA
2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditu dutenek hartuko dute parte zoketan. (Esku-orri honetan agertzen den edozein autoeskolatan).
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

ZURE TELEFONOA

AUTOESKOLA





[Klik! batean](#)

Trenaren lorratza

Trena bere burdinean, Txokoaldeko paisaia geldoa zeharkatzen. Bere arrasto bizia bezain iragankorra betikotu du argazkiak.

Argazkia: Ion Markel

Pello Errasti: “Ramon Unanueren helburua beti hobetzea zen”

Ramon Unanuek utzi zezakeen ondarerik onena, berak hasitako lanari ikasle izan zituenek eman dioten segida dugu. Horren adibide mordoa topa ditzakegu; tartean, atletismo munduan ibilbide luze bezain oparoa joratu duen Pello Errasti.

Donostiako La Sallen atletismoan ari zela, 16-17 bat urte zituela hasi zen entrenatzen Ramonekin, mailu jaurtiketan trebatzen, egun Haur Eskola kokatzen den eraikinaren azpian. Jarduera honetan marka asko hautsitako maisua izan zuen bidelagun.

Prestatzaile aitzindaria Pellok nabarmentzen duenez, “prestakuntza fisikoa kirol jarduera guztietan txertatu eta jarduera bakoitzerako egokitzen lehenengoetarikoa izan zen”, dio Pellok. Baita ikasturteko erronkak planifikatu edota proben egutegia lantzen ere. Entrenamenduak ere finkatutako helburuak betetzera zuzentzen zituen Unanuek. “Ramonen helburua beti hobetzea zen”. Egun ohikoa da hau guztia, baina garai hartan ez zen hain sarritan egiten.

Ez hori bakarrik. Kirola gustura praktikatzeko inguru bat sortzen zuela dio Pellok. Motibazioa lantzen zuen, eta horrek Ramonek beti bilatu ohi zuen hobekuntza ahalbidetzen zuen.

Goi mailara

Arrakastatsua suertatu zen Unanueren eskola eredu. “Berak hartzen zuen taldeak, ehuneko altu batean emaitza onak lortzen zituen. Edozein kirolari hartzen zuela goi mailara heltzen zen”, oroitzen du Pellok. Bera tartean. Errastiren palmaresa errepasatu besterik



Ramon Unanue zendu zenetik urte gutxi batzuk pasa dira. Bere itzala luzea da oso eta aitortza herrikoia egingo zaio ekainaren 24an. Lan horretan ari dira lanean bere lagunak. Ramon Unanueren kirol lezioak jaso zituzten bi lagun elkarrizketatu ditugu, Pello Errasti (argazkian) eta Kontxi Irureta (aldameneko orrialdean).

PELLO ERRASTI

“Askok jarraitu dugu jendea entrenatzen. Ramonek utzitako ondarea, entrenatzeko ilusioa, jendea motibatzeakoa transmititzen”

ez dago. Junior nahiz promesa mailan Espainiako txapelketan dominak sarritan irabazi zituen, “Euskadiko errekor absolutua ere bai. Bultzada handi bat eman nion mailu jaurtiketari Euskal Herri mailan”. Markez gain ordea, garrantzitsua iruditzen zaio nabarmentzea, Ramonen eskolari esker “urte askoan mantendu naiz maila on batean. Euskadiko txapel-dun geratu naiz 20 bat urtez”.

Ramonekin zuen “zorra” ere kitatu ahal izan du. Alegia, Unanuek irakatsi eta utzitako ondarea, berak belaunaldi berriari transmititzeara alegia. “Askok jarraitu dugu jendea entrenatzen. Ramonek utzitako ondarea, entrenatzeko ilusioa, jendea motibatzeakoa transmititzen”, dio. Hala, bere marka hobetu duen mutil bat entrenatu du bizileku duen Hernanin, prestatu duen neska talde batek marka ugari hautsi ditu, ikasle izan duenetako bat AEBtan dago atletismoko beka batekin ikasten... “Ikasi eta irakatsi didatena transmititu dut”, dio Pellok.

Ramoni egin ziezaiokeen omenaldirik ederrena egin dio beraz. Ekainaren 24rako antolatzen ari diren aitortza herritarra ere ederki irabazia duela

dio Pellok. “Berak egin duen lanagatik da. Hainbeste taldeekin hainbeste denboraz lan egin du, hainbeste toki desberdinetan ibili da. Egun polita izango da”.

Ramon Unanue oroitzen

Kirol jarduera, argazki erakusketa eta omenaldi ekitaldi berezi batekin me-rezitako aitortza herritarra egingo zaio ekainaren 24an, belaunaldi ezberdinetako hainbat eta hainbat herritar kirol munduan trebatu eta hezi zituen Ramon Unanue zenari. Lagun asko dira bere lan bolondresa eskertu eta omendu nahi dutenak. Lerrootan bi lekukotza bildu ditugu.

Kontxi Irureta: “Beti laguntzeko prest zegoen”

Emakumeak kirol munduan murgiltzen ere gogotik ahalegindu zen Ramon. Ramonek prestatu zituen herritar mordoaren artean, gimnasiako emakume taldea zegoen. Talde hartako kide Kontxi Iruretak oroitarazi digunez, Donostiara kirola egitera joaten zela izan zuen lagunaren eskutik, Ramonen eskolaren berri. Hasieran gutxi batzuk omen ziren, gero ahoz ahokoak egin zuen gainerakoa eta azkenean emakume dezentte bildu omen ziren gimnasia egitera. Gustura, pozik asko joaten zirela oroitzen du Kontxik. Egungo Haur Eskolako eraikinaren azpialdean eta inguruko plazan, ariketa ezberdinak egin edota korrika aritzen ziren.

Unanue bere lanean exijentea zela zioen. Irribarre artean oroitzen du behin, Ramonek Harane futbol zelai aldera korrikara joatea eskatu zieneko bizipena. Abiatu ziren eta “Ramonen korrika joateko esan zigun arren, gu lasai asko gindoazen kontu kontari. Etorriko ez zelakoan, han ikusten dugu bere kotxe gorrian. Leihotik, ze esan dizuet? galdezka. Bizi asko joan ginen korrika futbol zelairaino”.

Elkarrizketan zehar Kontxik aipatu digunez, Ramonek “bazekien zeini zer gehiago eskatu”. Unanuek sarritan errepikatzen zuen “zuk gehiago egin ahal duzu” aldarria. “Hark bazekien zuk egin ahal zenuela”, adierazi du Kontxik. Eta lortu arte ahalegintzen zen. “Berak



Ramon Unanuek prestatu zituen herritar mordoaren artean, gimnasiako emakume taldea zegoen.

KONTXI IRURETA

Lagungarri suertatu zitzaien Ramon Unanueren eskolan jasotako prestakuntza. Berari zor dio sasoian mantentzeko ahalegina, eta jasotako prestakuntza fisikoa

zure helburu hori lortzen laguntzen zizun”, oroitzen du Kontxik. “Nik ere harengandik lortu nuen”.

Lanketari segida

Lagungarri suertatu zitzaien Ramonen eskolan jasotako prestakuntza. Berari zor dio sasoian mantentzeko ahalegina, eta jasotako prestakuntza fisikoa. Zubietako itzulia ko-

rrika eta ariketa ezberdinekin egiten hasi zirenean, “gainerakoak korrika ikusi eta ni ezinean ikusteak haserretzen ninduen. Erretzeari uzten hasi nintzen”. Eta Zubietako itzulia korrika egitea lortu zutela oroitzen du.

Pentsa Ramonek egin zuen ekarpenaren itzala noraino heltzen zen. Txirrindularitzan murgiltzera zihoala eta, gimnasia taldea utzi beharrean aurkitu zen. Prestakuntza lanari segida emateko emakumei udaletxera joatea eskatu zien Ramonek. Penaz oroitzen du une hura Kontxik, baina egini-ko lanketa ez zen alferrikakoa izan. Unanuek esandakoa egin zuten, emakume talde hau udaletxera joan zen eta segida eman zioten gerora, Ramonekin ikasitakoari.

“Denei laguntzea gustuko zuen”

Ekainaren 24ko omenaldia ondo merezia duela irizten dio Kontxik. Han izango da. Ramon, aitortza herritarra egingo zaion egun horretan nola oroitu behar genukeen galdetu diogunean, adierazi digunez, beti kirolaren bueltan gogoratzen du. Exijentea bere lanean, kirolari amorratua eta oso jatorra eta alaia tratu pertsonalean. Eta kirol munduan nahiz hortik kanpo, “denei laguntzea gustuko zuen. Laguntzeko beti prest zegoen”. Gimnasiako emakume taldeagatik dio, “izango zituen bere zereginak. Baina guregana ere han azaltzen zen”.

afariak
Patri^{na} jatetxea
- bazkariak EGUNERO
- afariak. asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXETRESNEN KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER
Usurbil

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825



Ekainaren 10ean ospatu zen Ikastolaren Eguna. Irudi gehiago www.noaua.eus web orriko Argazkitegian aurkituko dituzue.

noaúa euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaúa.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...


**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkidetza: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaúa.eus

NOAÚA
BIDAIAK

Lasartetik irteera
Noaúaren laguntzarekin



POLONIA

Abuztuaren 29tik
irailak 5 arte



OROSOMON Taldeko agentzia

943 373 613

info@noaúa.eus

www.noaúa.eus

Hipodromo Etorbidea 10, 2016 Lasarte - Oria

SOLASALDIA

NAZIOGINTZA, EUSKARA ETA ESTRATEGIA INDEPENDENTISTA

**Ekainak 20, SUTEGIN,
arratsaldeko 19:30etan**

Pello Otxandiano (Sortu), Edurne Larrañaga (LAB)
eta Xabier Iraola (Ernai), Mertxe Aizpuruak elkarrizketatuta.

Independentismoa eta euskara elkarrekin doazen bideak dira?

sortu
USURIL

Urepeleko artzainari txistu egin ziotenekoa

50 URTE BETE ZIREN IGANDEAN; EUSEBIO TXAPARTEGI BERTAN IZAN ZEN

1967ko ekainaren 11. Donostiako Anoeta pilotalekua, borborka. Alfonso Irigoien epaimahaikideen erabakia irakurtzen hasi zen: “Xalbador bertsolaria izan da Uzta-piderek batera, azken fasera iragan dena”. Entzuleen oihuek eta txistuek giroa zeharo gaiztotu zuten. Bertsolariek ezin kantuan segi. Zalaparta baretzen hasi zenean, Fernando Aire Xalbadorrek bertso gogoangarria osatu zuen: *txistuak jo dituzute bainan / maite zaituztet oraindik*. Txistuak txalo bihurtuz.



1967ko Bertsolari Txapelketa Uzta-pidek irabazi zuen. Xalbadorri jo zizkieten txistuengatik da ezaguna, ordea.

“Txistuak txalo bihurtzen dituen bertsolaria”

Bertsolaritzaren une historikoetako bat da ez-bairik gabe. 50 urteren ondoren, halaxe ikusten dugu. Baina gertatu berritan, ez zen anekdota hutsean geratu. “Gaurkoarekin, txistuak txalo bihurtuta, buelta eman zaio gertakari lotsagarriari, anekdota gogoangarri bat ekarri da bertsolaritzaren historiara. Baina Urepeleko artzainaren barnean geratu den tristura bertsozale guztiena da, inoiz urtuko ez den histasun beltza”. Zeruko Argian halaxe mintzo ziren txapelketaren inguruan egin zuten kronikan:

“Buneta beti aldean, begiak erdi itxian eta ahotsari hartsa doi ematen kantatzen du Fernando Aire, Xalbador-ek. Gizon luzexka da Urepeleko artzaina, eta esan liteke malda musker pikoek baldartu diotela ibilera taula gainera bidean.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa irabazle berria ezagutzeko bidean da ekainaren hamaika honetan. Goizeko saioa amaituta, lau bertsolari, erdiak, pasatu dira arratsaldekorra: Xalbador, Lopategi, Gorrotxategi eta Lazkao Txiki.

Lauren arteko lehia gozagarri zaio Anoetako frontoira hurbildu denari. Lauren arteko bat, bakarra izanen da aurreko txapelkunarekin, Uzta-piderek azkenean neurtuko dena.

Epaimahaiak hondar saiora pasatzen den bertsolariaren izena eman duenean, Fernando Aire, Xalbador, oihuz eta txistu hotsez hartu da mahaia-aren erabakia. Bost minutu eta erdi iraun du entzuleen txistu-aldia, bertsolari bati inoiz egin zaion luzeena.

Tartean txalo bakan batzuk ere badira, eta iskanbila baretu denean, mikrofonora hurreratu eta honela kantatu du:

Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa neure gustora nagonik, poz gehiago izango nuen albotik beha egonik; zuek ezpazerate kontentu errua ez daukat, ez, nik...

Pilotalekuan bildutako entzuleak berriro eten du Xalbadorren kantua, baina oraingoan txalo zaparrada bihurtzeko lehengo txistu eta fuerak. Xalbadorrek, begiak bildu eta airean utzi dituen hitzak ehizatzen ditu atzera ere:



1967ko txapelketan bigarren izan zen. Saria eskuetan dela ageri da Zeruko Argiaren argazki honetan.

Zuek ezpazerate kontentu errua ez daukat, ez, nik: txistuak jo dituzue bainan maite zaituztet oraindik!

Txalo artean aurkitu behar izan du amaitzeko bidea, eskuak handitzerainoko esku-zartak eta disimulatu gabeko malko batzuk erdietsi ditu ibilera baldarreko bertsolari luze-karak. Berari ere irrastatu zaizkio batzuk... Ez da Donostian kantatzen duen lehen aldia. Jendea ohituxea dago Xalbadorren euskara entzuten, baina Aingeru Irigarai, Apat Etxebarne-k Diario de Navarra egunkarian egun batzuk lehen-

ago eman duen artikulu batean iragarri bezala, zail egiten zaie oraindik ere haren mintzamoldea frontoia bete duten gipuzkoarrei.

Halaz ere, bertsozale askok gogoan ditu aurreko txapelketan emazte hilaren soinekoari kantatutako bertso haiek, entzulea oraino ere poema zirraragarri batera daramana:

Pentsa zazute alargundu bat ez daiteke izan urusa, dolamen hunek, oi!, ez dezala ainitz gehiago luza; orain urtea ziloan sartu andreñoaren gorputza; haren arropa hantxet dilindan penaz ikusten dut hutsa.

Gaurkoarekin, txistuak txalo bihurtuta, buelta eman zaio gertakari lotsagarriari, anekdota gogoangarri bat ekarri da bertsolaritzaren historiara. Baina Urepeleko artzainaren barnean geratu den tristura bertsozale guztiena da, inoiz urtuko ez den histasun beltza”.

Zeruko Argia, 1967.

Gure mendea (Argia, 2000) liburutik hartua.

Eusebio Txapartegi final hartan izan zen

Ursbildar bat baino gehiago izango zen Anoeta pilotalekuan jokatu zen final hartan. Tartean, Eusebio Txapartegi. Iñaki Agirresaroberekin batera izandako solasaldian egin dizkigu adierazpenok.

Urte asko pasa diren arren, Eusebio Txapartegik ondo go-goan du final hura. Baita bertan kantatu ziren hainbat bertso ere.

Oihu eta txistu

Uztapide eta Xalbador igaro ziren buruz burukora. “Epaimahaiak Xalbadoren izena aipatu zuenean, txistu dezente izan zen”, Txapartegik aipatu digunez. Uztapide eta Xalbador zutiitu ziren. Buruz burukoa jokatu behar zuten, “baina batzuk txistuka, besteak txaloka... Eta Uztapide eta Xalbador ezin kantuan hasi. Isilune batean Xalbador hasi zen kantari: *zuek ezpazerate kontentu / errua ez daukat, ez, nik...* Eta txistu gehiago berriro”. Txapartegiren ustez, “Lopategi pasako zela espero zuen jendeak, baina azkenean Xalbador pasa zen buruz burukora”. Lopategik hirugarren bukatu zuen txapelketa hura.



Zalpartaren aurrean, “behera egin baino, gora etorri zen Xalbador”, halaxe aitortu digu Eusebio Txapartegik. Iñaki Agirresaroberekin batera elkarrizketatu genuen, duela egun batzuk, Andazpe elkartearen.

EUSEBIO TXAPARTEGI

“Lopategi pasako zela espero zuen jendeak, baina azkenean Xalbador pasa zen buruz burukora”

“Xalbador noizbait hasi zen berriro kantuan eta txistuak jotuzue bainan / maite zaituztet oraindik! abestu zuenean lehertu egin zen giroa. Jendea negarrez hasi zen, txapelak botatzen... Oraindik bihotzera etortzen zait ordukoa”. Iskanbilaren ondoren oso ondo aritu

zela dio Eusebio Txapartegik. Baina txapela Uztapiderentzat izan zen azkenean.

“Behera egin baino, gora etorri zen Xalbador”

Txapartegiren ustez, zalpartaren aurrean “behera egin baino gora etorri zen Xalbador, eta txapela ere merezi izan zuela esan izan du Amurizak”. Ez pentsa horrelakoak ohikoak zirenik. Akaso horregatik dauka 1967ko finalak daukan oihartzuna. “Final hartan egon zen zalaparta, bestela ez zen halakorik izaten”.

Zeruko Argiaren kronikan,

bestelako irakurketa egiten zuten: Iparraldeko bertsolariak ulertzeko lanak izaten zituztela gipuzkoarrek. “Zenbat eta gehiago joan gero eta gehiago ulertzen zitzaien”, adierazi digu Txapartegik. “Hemengo hitzak ere sartzen zituen. Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa/ neure gustora nagonik, abestu zuenean, Anai arrebok hori ez da oso ‘frantsesa’ izango. Ez dut uste”.

Honen harira, Iñaki Agirresarobek anekdota hau ekarri du gogora: “Bertso afari batean, Elosuan, Mattin eta Xalbador ari ziren kantari. Egileor hangoa zen eta amaiera aldean antzeko zerbait aipatu zuen: *frantsesak ere agurra kantatzen hasi beharko du joan aurretik*. Xalbadorek honela erantzun omen zion: *Frantziara ez da inor joango handik ez baita inor etorri*”.

Gazte hil zen

Gazte zendu zen Xalbador, 56 urterekin. Bere jaioterrian eskaini zitzaion omenaldi-egunean bihotzekoak jota hil zen. Eusebio Txapartegik esan digunez, “asko aitatu zen hura, aitatu ez zen ba!”.

Gorrotxategik finalean kantatutako bertso bat gogoan iltzaturik

1967ko finaletik bestelako oroitzapenak ere gordetzen ditu Eusebio Txapartegik. “Jendea erotuta utzi zuen Gorrotxategik”. Finaleko gazteena zen. “Bere herriko batzuk baziren han, baina artean ez zuen jendeak ezagutzen. Final hura eta gero hasi zen oihartzuna hartzen”. Eta kantuan hasi zaigu Txapartegi:

Soldadu neon Cadiz aldean honuntza naute ekarri hemen zuekin biltzea baita Bihotzarentzat pozgarri Askok geldituko zineten gaur Bertso gehiagon egarri Politagok kantaiko ditugu Arratsaldean etorri



Xalbador kantuan eta ezkerretara Gorrotxategi. Cadizen zen soldaduskan baina 1967ko finalera etortzeko baimena lortu zuen.

Gorrotxategik final hartan abestu zuen bertso hau eta oraindik buruan du Txapartegik. Ikaragarria bere memoria.

“Askotan joaten ginen bertso saioetara”

Saioetara joan bai, baina ez zuen kanturako joera hartu

Txapartegik: “Gu entzutera joaten ginen, ez ginen bertsoan aritzen. Michelin aritzen nintzen orduan eta fabrikako lagunekin ibiltzen nintzen. Gero andregaiarekin hasi nintzenean, andregaiarekin joaten nintzen. Andreak halaxe esaten zidan, geldi egoten nekiela bertsoa entzuten nengonean bakarrik!”.

Mattin eta Xalbador maiz aritzen ziren Usurbil aldean

“Elkarrekin zenbatetan etorriko ziren hona, Santixabeletan kantatzera”. Mattini omenaldia egin zitzaion Usurbilen. Urtebetera edo hil zen, istripuz. 1981eko uztailaren 22an.

Figurante bila, Telmo Iruretari buruzko filmerako

Telmo Irueta aktore zumaiaarraren bizitzan oinarrituriko "De Agua y Arena" filma grabatzera doaz. Ostiral honetan, ekainaren 16an, arratsaldeko 18:00etan hasita Sutegin egingo den filmazioarako figurante bila dabil-tza. Atea Teatrotik berri eman digutenez, "ordueditxo bat lehenago bertaratzeko eskatzen zaie parte hartzeko prest daudenei. Hauek, trukean, doan izango dute antolatu dugun bakarriketa-saiorako sarrera. Zu ere animatzen bazara... hilaren 16an 17:30ean Sutegin".

Telmo Irueta, Lehen Antzerki Bakarriketa Laburren Gaubelan

Ostiral honetan, ekainak 16, Atea Teatrok 20:30ean Sutegin antolatu duen Lehen Antzerki Bakarriketa Laburren Gaubelan parte hartuko du Telmok. Sarrera 6 eurotan eskuratu ahalko da. Ordubete eta hogei minutuko saioan, 5-20 minutu 6 antzerki pieza laburrez goza-



Interesatuta daudenak ostiral honetan agertu daitezela 17.30ean Sutegin.

tzeko aukera izango da, batzuk euskaraz, besteak gaztelaniaz:

Iñigo Dierez: "Nire ingurua"

"Iñigo Dierez Madrilen bizi da. Bertako esperientziak kontatuko dizkigu, gai desberdinez sakondu bitartean: erlijioa, moralistak eta sexua".

Miren Segovia: "Entzuleentzat nire lehen bakarriketa"

"Hemen nago, antzoki batean, antzezten, publiko baten aurrean. Publiko bat, ikusten nauena, entzuten nauena, adi dudana, eta ulertzen didana".

Esther Uriak: "Cada día es sólo una vez al día"

Porrot egin duen pertsona bat hezuramaitzen du Esther Uriak, hizkuntza informal eta lotsagabea baliatzen du.

Enrike Amilibia: "Marioren bakarriketa"

"Kaixo, ni Mario naiz. Mutil alaia, pixka bat lotsatia baina lagunartean oso martxosoa! Egunero gustukoak ditudan gauzak egiten ditut".

Telmo Irueta: "Toquecito minus"

"Pastillez nahastu izanagatik, guztia askoz politagoa ikusten duen baina ondo sentitzeko ezer hartu beharrik ez duela dioen mutil baten istorioa da. Zortea du den pertsona delako eta ospatu nahi du".

Amaia Irazabal:

"inor.ez.dator."

"Bere urtebetetzea da eta festa bat antolatu du. Dena prest dauka, lehenengo txirrin hostari adi. Lagun asko espero ditu... Baina inor ez dator".

Dantza erakustaldia

Sutegiko eserlekuetatik mugitu ere egin gabe, munduan barrena bidaiatzeko aukera eskaini zuen ekainaren 10ean, Warda Mallalek zuzenduriko "Dantza kultura da" emanaldiak. Kultura ezberdinen adierazpide diren dantza erakustaldi koloretsuaz gozatzeko aukera izan zuten auditoriora gerturatu zirenek.



Warda Mallalek zuzenduriko "Dantza kultura da" saioan jendetza batu zen.

Udalak inkesta bat jarri du martxan

65 urtetik gorako herritarrek Gizarte Zerbitzuen inguruan duten iritzia jasotzea da helburua. Azti-kerreko inkestatzaileek beti beren gainean eramango dute inkestatzaile gisa identifikatzen dituen akreditazioa. Gutxi gora behera 25 galdera egingo dira eta elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egingo dira, elkarrizketatuaren nahiaren arabera.

Lehen sorospenen ikastaroa

Ekainaren 19tik 30era, arratsalde, 18:00-21:00 artean Usurbilen. "Interesa duen edonori zuzendua. Ez da alde zuzeneko osasun eza gutzarik behar", ohartarazi dute. "Ikastaro teoriko-praktiko honekin lehen sorospentako oinarriak barnerratu dituzu. Parte hartzaile kopurua mugatua izango da. Prezioa: 110 euro. Izen emateko eta argibide gehiagorako: dyagipuzkoa.com/943464622/info@DYAgipuzkoa.com

KzGunea

Ekainean arratsalde izango da zabalik, 16:00-20:00 artean. Datozen ikastaroak:
 ■ Ekainak 19-28, 16:00-18:00 "Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako".
 ■ Ekainak 26-29, 18:00-20:00 "LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu".

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

txirriStra
TABERNA
 -Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Usurbil K.E.-ren Eguneko afaritarako txartelak salgai

Es kubaloi jokalaria, entrenatzaile, guraso edota zuzendaritzako kideak bilduko dituen 2016-17 ikasturtearen agur festa antolatzen ari da Usurbil Kirol Elkarteak ekainaren 24rako. Ospakizunen artean, herri afaria izango da frontoian. Txartelak dagoeneko salgai daude 20 eurotan helduenak, 10 eurotan gazteenak.

Batzuentzako zein besteen-tzako menuak ere ezberdinak izango dira. Helduenean, entsalada mistoa, otarrainxka, txerri saiheskia edo oilaskoa, eta denetariko pastelak dastatu ahalgo dira. Gazteenean, patetea, otarrainxka, hanburguesa eta izozkiak. Txartelak Aitzagan, Bentan, Bordatxon edo Txiribogan eskura ditzakezue.

Batzarra

Usurbil K.E.-ren batzarra ostiral honetan, ekainaren 16an



Ekainaren 24an ospatuko da. Ondoren, afari baten bueltan elkartuko dira frontoian. Argazkia duela urte batzuetako eguneko da.

19:30etan Potxoenean. Gai zerrenda:

- 1- Lehendakariaren agurra.
- 2- 2016-17 denboraldiaren balantzea.
- 3- 2017-18 denboraldirako aurreikuspenak.
- 4- Zuzendaritza Batzordearen eta bazkideen proposamenak.
- 5- Zuzendaritza batzordea-

ren kargu uztea jakinaraztea 2017/06/30ean.

- 6 -Zuzendaritza batzorde berria izendatzea, egoki bada, 2017/07/01etik aurrera jarduteko edo Zuzendaritza batzorde berririk ezean, Usurbil Kirol Elkartearen likidazio prozesua abian jartzea.
- 7- Galdera-eskaerak.

Ekainaren 24an ospatuko da Usurbil F.T.ren Eguna

- Goizean, klubeko txikienekin jolasak eta bazkaria.
 - Gauean, Usurbil F.T.-ko ki-deen afaria.
- Antolatzailea: Usurbil F.T.

Udane Makazaga eta Ekaitz Ibargoi, Talentuen

detekziorako deituak

Usurbil K.E.-ko bi jokalaria, Udane Makazaga eta Ekaitz Ibargoi deitu dituzte, igandean, ekainaren 18an Getxoko Fadura Kiroldegian deitu duten talentuen detekziorako entrenamendu jardunaldian parte hartzera.

Berria txapelketako finalaurrekoetan, Azpeitia aurkari

Azken fasera gerturatzen ari den pilota txapelketako finalaurrekoak Usurbilen jokatu dira. Pagazpe P.E. Azpeitiarekin lehiatuko da.

2. Berdintasun Plana egikaritzeko prest



Astebete lehenago, Usurbilgo Udalaren maiatzaren 30eko osoko ohiko bilkuran aho

batez onartu zuten 2017-2020 urte arterako Usurbilgo Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 2. Plana egi-

karitzeko prest da, Udalak berak pasa den ekainaren 6an Potxoenean jendaurrean aurkeztu ostean.

Udarako AEK-ren eskaintza

Etumeta AEK euskaltegiak B2 eta C1 mailak prestatzeko 100 orduko ikastaroak antolatu ditu uztailearen 5etik irailaren 14ra. Klaseak egunerokoak eta 4 ordukoak izango dira. Honez gain, Euskal Herri mailan ikastaro trinkoak, bi asteko barnetegiak, familia barnetegiak edota barnetegi ibiltariak antolatu ditu AEK-k. Mintzalagun egitasmoan ere noiznahi inskribatzeko aukera dago. Informazio gehiagorako eta izen emateko:

- Kale Nagusia 43, behea
- 607 609 379
- muntteri.blogspot.com.es
- usurbil@aek.eus
- www.aek.eus

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Precio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenean etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelegin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekien eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zu-

biaurrea 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daitezke. 1990eko. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-
tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekati-
txiki-Puntapaxetik. 653380557.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Sukaldari laguntzaile bat behar da jatetxe baterako. Gidatzeko

karnetarekin eta kotxearekin. Tel. 680 483 164

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarreraren altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Neska gazte bat eskaintzen da euskarako eta gainontzeko ikasgaietako klase partikularrik emateko. Euskal Filologian lizentziatua, Mondragon Unibertsitatean Irakaskuntzako masterra bukatu berri. 687348223

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportunitateak emateko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelar, ingelesez eta frantsean goi maila eta tituladuna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelohenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umek zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gaez. 677 624 965



"Joan den maiatzaren 28an ospatu ziren lehenbiziko jaunartzeak. Aurten hiru izan dira. Hor dituzue argazkian. Ezkerretik hasita: Pablo Otaegi Gomez, Naroa Algorta Erro eta Matxin Olasagasti Arin. Gazteak urduri samar, baina dena oso ondo egin zuten. Elizkizuna ederra izan zen. Lerro hauen bidez eskerrik beroenak Amparo eta Maritxu katekistei beren lanagatik eta eliza garbi eta dotore jartzen lanean aritu diren guztiei. Mila esker", adierazi die lerroon eta argazkiaren bidez Aginagatik, Maria Angeles Arrutik.



Zorionak Amaiur!
Ekainaren 27an 2 urte egiten dituzu, geure bihurritxo handitzen ari da! Asko maite zaitugu. Muxu erraldoia aita, ama eta Izarren partez.



Zorionak Aritz!
Ekainaren 6an 3 urte egingo ditu gure etxeko txikiak! Muxu potoloak!



Zorionak Hugo!
Larunbatean 6 urte beteko dituzu. Muxu haundi bat familia guztiaren partez.



Ongi etorri Amets!
Ekainaren 12an gure artera etorri zara eta oso oso pozik gaude... Zorionak eta muxu asko asko Josu, Lorea eta Amets. Iera, Naiara eta familia osoaren partez.

OHARRA: 2017ko ekainaren 23an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: ekainaren 19an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketari egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutzan). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Apropoza pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lan egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldari lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanetan. Berehalan lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen

gaztea, geriatría laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketari lanak, tabernan arraskan aritze-ko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta errefe-

rentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketari lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketari, jabetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketari lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, irailatik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketari lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketari lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosi nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburukak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenean ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	.943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	.943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	.900 776 776	Taxia (Angel).....	.607 928 770
Udalzaingoa.....	.943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	.677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	.943 370 148	Eusko Tren.....	.943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	.697 919 516	LurraldeBus.....	.943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	.943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	.943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	.943 361 215	Anbulategia.....	.943 362 013
Bake Epaitegia.....	.943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	.943 376 076
Udarregi Ikastola.....	.943 361 216	Iturralde botika.....	.943 363 395
Haur Eskola.....	.943 374 061	DYA.....	.943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	.943 364 600	Gurutze Gorria.....	.943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	.943 372 077	Emergentziak.....	.112
Hastapen tailerrak.....	.943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	.900 840 111 / 016
KZgunea.....	.943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	.943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	.943 372 498	Kutxabank.....	.943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	.943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	.943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	.943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	.943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	.607 609 379	Banco Popular Español.....	.943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	.943 365 249	BBVA.....	.943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	.943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	.943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	.943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	.901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	.943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	.902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	.943 361 239	Telefonica.....	.1004
Noaual Kultur Elkartea.....	.943 360 321	Euskaltel.....	.900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 16 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 17 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 18 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 20 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 21 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ekainak 15 - ekainak 25

Osteguna 22 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

Ostirala 23 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

16 ostirala

- Udarregiko ikasleen antzerki musikatua 12:30ean Sutegin.
- Telmo Iruretari buruzko filmaren grabazioa. 17:30ean Sutegin.
- I. Antzerki bakarrizketa laburren gaubela. 20:30ean Sutegin.

17 larunbata

- Zumarteko eraikinari agur festa Egun osoko festa (ikus 8. orrialdea).
- Inner Galaktik artistaren erakusketa Artzabalen, ekainaren 22ra arte.

18 igandea

- Inner Galaktik artistaren erakusketa Artzabalen, ekainaren 22ra arte.

Kalezarko jaietako oilasko biltzaile txikien irteerarako oharrak

Ekainaren 24an ospatuko den oilasko biltzaile txikien irteerari lotutako zenbait ohar helarazi dizkigute. Batetik, iragarria zegoen moduan 09:00etan ez, 10:00etan irtengo direla auzoko plazatik. Bigarrenik, hitzorduan "parte hartzen duten haurrek, guraso baten ardurapean parte hartuko dute soilik". Eta azkenik, une honetan, presazkoena den deialdia. Kalejiraren amaieran, Kalezarren bertan ospatuko duten bazkaritarako txartelak salgai izango dira ekainaren 20ra arte Kaffa kafetegian.



Ekainaren 24ko bazkaritarako txartelak salgai izango dira ekainaren 20ra arte Kaffan.

Ekainak 23 ostirala: San Juan bezpera

- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 22:00 San Juan sua.
- Ondoren, eskearen jarraipena.
- Amaitzean, Eromeria taldearekin dantzaldia.

Ekainak 24 larunbata: San Juan Eguna

- 09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.
- 11:30 Meza Nagusia.
- Ondoren, toka.
- 13:00 Gorritiren Showa.
- 14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.
- 16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da).
- 16:30 Buruhandiak.
- 17:30 Herriko dantzariak.

- 18:30 Soka Dantza.
- Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik.
- 23:30 Zesuma taldea.
- Ondoren, DJ Seymar.

Ekainak 25 igandea: Umeen Eguna

- 10:00 XV. Ume krosa.
 - 11:30 Jolasak.
 - 16:30 Tailerrak.
 - 18:00 Txokolatada.
 - Ondoren, buruhandiak.
 - 19:00 DJ Guderekin dantzaldia.
- Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.
- Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.

Datozenak

Usurbilgo jaiak, begibistan

Zikiro janeko txartelak salgai

- Uztailaren 1eko zikiro janerako txartelak salgai 25 eurotan (15 eurotan ikasle eta langabetuentzat) Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan.

Danborrada entseguak

- 20:00-21:00 Danborradako entseguak astelehen, asteazken eta ostiraleroko, Udarregi Ikastolako frontoian.

Bertsopaper lehiaketak

- Ekainaren 19ra arte dago 41. Bertsopaper eta Gaztetxoan Bertsopaper Lehiaketarako lanak aurkezteko epea.

Jubilatuaren bazkariko txartelak

erosteko epea: ekainak 19-21

- Ekainaren 30ean 14:00etan Atxega jauregian ospatuko den jubilatuen bazkaritarako txartelak egun hauetan ipiniko dira salgai: Ekainak 19-21. Txartelak Aginagako Arrate, Santueneko Gure Elkarte eta Usurbilgo Gure Pakea Elkarten egoitzetan eskura daitezke. Baita Gizarte Zerbitzuetan ere.

Ekainak 29-uztailak 2

- Usurbilgo jaiak. Hurbilago Elkarteak jaurtiko du txupinazoa.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

GERTU



EKAINA

Hilabete osoan %10 arterainoko
deskontuak GERTU txartelarekin

hurbilag 

Hurbilaga: Hurbilaga, Hurbilaga, Hurbilaga



Edertu zaitez!

Inar
ESTETIKA

Zure azala
Kalitate handiko
produktuekin
zaintzen dugu



Munalurra 2, Usurbil - 943 571 680

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

Berria!

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

weelko

PRESOTERAPIA TRATAMENDUA

Zertarako da egokia?

- Zelulitisa
- Estriak
- Zirkulazio txarra
- Likidoen erretentzia
- Menopausia
- Idorreria
- Erditu ondorengo zaintza
- Arazo linfatikoak
- Edemak
- ...

Zer eskaintzen dugu?

SESION 1 = 20€
10 SESIOKO BONOIA = 125€

Eguerditan irekia!
Nagusia 8, Usurbil - Tel. 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA
Eskola adinerako berezia

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontserbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula: Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila destilatuz eta Bisabobolez indartua

GOLDWELL ELUMEN

mistoa

Zorien aurkako lozio ORGANIKOA

RUNDA

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951